

Jabier Kaltzakorta euskaltzainaren sarrera-hitzaldiari erantzuna

AREJITA, Adolfo
Euskaltzain osoa

Jaun-andreak, agur eta egun on

Euskaltzainak, Markina-Xemeingo Uri-eleizateetako herritarrak, auzo-erbesteetatik etorri zareten lagun, euskaltzale eta bestelangoak, agur eta egun on guzti-guztioi.

Wilhelm Humboldt prusiarrak Murgartegi Jauregi honetara etorri zenean jende aurrean hitz egiteko erarik izan balu, agian *Meine Damen und Herren* edo antzeko formularen batez zuzenduko zen entzuleengana, damak lehenik eta jaunak hurren direla. Guk bestetara. Hizkuntza bakoitzak bere jiteak ditu, bere *jenioa*, bere arima, behinolako erromantikoek esango luketen bezala.

Gure euskaltzain berria hitzaldi mamitsu batekin Euskaltzaindiaren ateartera hurbildu bazaigu, zer gutxiago erantzunezko berba labur batekin beroni agur egitea, Akademiaren usu-legeari men eginez. Sarrera-hitzaldi hau, laburrean entzun duzuen, bere osoan irakurri ahal izango duzue aurrerakoan, eta nigaz batera esan ahal izango duzue, behin mamurtu ondoren, harako Maixu Juanek, Peru Landetakori, *Peru Abarka*-ri, berba-jardunaldietako seigarrenean, azken aldera, agur egin orduan esan zuen antzera: «poz ta irabazi geijagogaz nua, amar erbi edo eper ilda baninua baino» (PAb 123).

Irakatsirik asko eskaini diguzu, Jabier, gaurkoan ez ezik, orain arteko ikerlari ibilbide luze horretan idatzi duzunaz, eta ez gutxitan ahoz transmititu diguzun guztiaz. Aurretiaz natorkizu esatera, meritugarriak direla zinez gure

hizkuntza-literaturen mesedetan iragako urte luzeetan sortu, garatu eta eihoz duzun guztia, une jakin batean euskaltzain oso izendapena irabazteko.

Gaurko honetan bidealdi luze bat eragin digu Kaltzakorta jaunak, W. Humboldt-ek Euskal Herrira eta bertora Markinara egin zuen osterata aitzakia hartuta. Egunkari bat idatzi zuen jakitun prusiarrak, non gure herriaz eta hizkuntza zaharraz ere ikerketa ere egiten duen: *Die Vasken, oder Bemerkungen auf einer Reise durch Biscaya und das französische Basquenland im Frühling des Jahrs 1801. nebst Untersuchungen über die Vaskische Sprache und Nation, und einer kurzen Darstellung ihrer Grammatik und ihres Wörrervorraths*. Bide hori gomutara ekarriz, bide horren aldeetan eta euskal herrietan barrena jaso diren balada, koplak, eresak zahar... eta batez ere erre-frauek, erre-frauek bildumak ageriratu eta begi zorrotzez finkatu dizkigu euron transmisioaren baldintzak, mugak eta egitasuna.

2013ko uztailearen 19an hautatu zuen Akademiak Jabier Kaltzakorta euskaltzain oso, Jose Luis Lizundia jaunak emeritu egoerara igarotzean utzi zuen aulkia betetzeko. Beronen merezimenduak neurtzeko, ez dut joko bidean irabazitako diploma eta tituluen aipuak egitera, ez berak ez nik ez baitiegu horrelakoei sineste gehiegi ematen, nahiz gaur horien hotsera dantzaz dabilen gizarte gurea. Nahiago dut, aldiz, zuzenago deritzat, beronen bibliografiari so bat egitea eta hartako ale bakoitzaren edukia trinkotasunari eta sakonerari neurria hartzea, kopuru neurriaz gainera. Neurri-kordela ere luzea beharko horretarako haren baten, askok uste baino luzeagoa.

Beronen liburuetan, baina batez ere aldizkarietan barrena argitaratu dituen ikerlanak ohartu irakurritz gero, eta berari astiorduetan honez edo harrez hitz egiten entzuteko betarik izan baduzue, gutariko edozein harrutuko da, euskal hizkuntza-literaturez ez ezik, literatura unibertsalaz zein kultura zabalaz beronek duen jakinduria zabala. Ezaguera entziklopediko moduko osotasun horretatik literaturaren eta bereziki herri literaturaren barrutia hautatu zuen orain dela aspaldi bere baratz preziatu, eta hori landu du gehienik, baina beste inguru alderdiak ere ahantzi gabe.

Baina euskararen barrutira eta euskaraz sortu diren edergarrietara bere arreata eta indarrak zuzendu izana ez da berez datorren kontua. «Behin baino gehiagotan itaundu nion neure buruari ea bide egokia aukeratu nuen»

egiten du gogoeta. Euskararen mundu hau txikia da, bai, eta euskaldunok ere gizarte txikia osatzen dugu, eta batzuetan amorrarazten eta gogaitarazten gaituen mundutxo. Egia da, bai, baina Mikel Zarate idazteak Derioko Udako Ikastaroko ospakizun batean esan zuen bezala, «hauxe da geure mundu txikia». Esatea legez, ia geure esku ere ez dago berau maitatzea; bertakoak gara eta bereak gaitu.

Halaxe, Kaltzakorta gazteak ere, ia mutil berdingotan esango genuke, edo Unibertsitatera sartu orduan zer edo hura hautatu behar eta, letren bidetik jo zuen, eta euskal letren bidetik hala beharrik. Bide hau aspaldi hartu zuen eta behin hona ezker, ez dago atzera egiterik. Ez eta damurik ere; hala uste dut. Sendotasunez, zuhurtasunez eta ekimenez jokatu duela-ko harrezkeroko guztian, euskal letren ortu-baratzea ahaleginean jorratuz, denbora luzez eta gaurdaino. Gaztetan hain gogoko zien matematikei edo zientziei oratu balie, beste kukurruku bat entzungo zen, eta Hizkuntzaren Akademyan edo Letren Fakultate batean ezagutu ordez, gizarteko beste esparruren baten izango genuen, geure damu handiz.

Baina bizitzan hona edo hara beharrak ez dira berez izaten. Euren atzeak eta arrazoiak ohi dituzte, eta Kaltzakortak ere bide hau hartu bazuen, zerbaiten eraginez jazo zen hori: ingurune bat, etxe eta gizarte giro bat, baldintzakizun batzuk bere umetako eta gaztetasuneko joan-etorrietan. Hala uste dugu.

Euskararen, euskara onaren estimua, herri hizkeraren atxikimendua, ele ederren zaletasuna bere inguru hurbiletik zetozkion gure ikertzaileari. Hasteko, etxetik bertatik; aitatatik eta amatatik. Beronek behin eta berriro eta harrotasunez esaten duen bezala, Markinakoa eta kaletarra dugu Jabier, ez «abarkaduna», behinola baserritarrei esaten zitzaien haietarikoa. Maisu Juanen giro eta jatorritik hurbilagokoa, Peru Abarkaren Landetako paradisu girotik baino. Egia da, Juan Jose Mogelen *etxe*ko eskolia izan duela ikasbide eta euskara kontuan iturri emaritsua, bai edukiaren, baina batez ere zaletasunaren aldetik. Baina ez horraitio, hark 1816an dieon *Baserritar Eskolia*, kalekoa baino. Bai Juan Josek, bai Bizentak *osaba sazerdote* bat zuten bide-erakusle eta eskola-maisu; euskara gaietan ere. Eta datu autobiografiko hau aitortzen dute iloba bata eta besteak. Jabier Kaltzakortak ez du osaba abaderik izan bere euskara-eskolatze bidean; etxeak izan ditu, ama esango

nuke berariaz, bai irakasle, eta gerora euskara kontuan ikasbide eta informazio iturri emankorra.

Baserritar, nekezale edo *nekazariak* aipatzen dituzte gure euskal klasikoek euskara onaren iturri gisa. Halaxe Maisu Juan kaletarrak ere baserri giroan murgildurik euskara eta bertako mundua barrutik ezagutzen egon ondoren, agintzen dio Peruri: *Jangoikuak nai ba, emendi aurrera artuko dot ardurua andi bat, baserritar ta beste nekezale erderabagakuetati euskeria ondo baino obeto ikasteko.*

Nekazari mundua eta nekazarien hizkera eredu bai, baina Mogeldarrak eurak, gure Kaltzakorta bezala, kaletar puruak ditugu, beronen ama den bezala, eta kaleartean herriko euskara gehiago ikasi du larri-larri baserri munduan baino. Baserrietako laratz ondoetara ere jo du, eta asko, gerora, batean lo-kantak direla, bestean erretratuak, harako Mogelek edo Toribio Etxebarriak dakarren halako hitz edo esaera ezaguna duen jakin nahirik. Ibilira da Markinaldeko eta urrunagoko laratz ondoetan amama zaharren-gandik informazio eske. Baina Markinako uriko kalearteak, lagunarteak eta etxebarrua izan ditu informazio iturri oparoa, eta han aurkitu du sarritan, baserritarren artean idoro uste zukeena.

Gurasoen epelean ikasi zuen Markinako euskara ederrak berezko bidea hartu zuen eskolara zenean ere. Umetan hartu zuen eskola-jarduna, gehiena edo guztia, euskaraz zela diosku bera. Ez zuen, bada, txikitik ezagutu, eratzunaren zigorra, gure Mogelek garraztasun minez bere denborako ohi-tura latz hori salatzen zuena.

Zori bera ezagutu zuten Juan Antonio Mogelek loba umezurtz biak, Juan Josek eta Bizentak, osabaren ardurapean eskolatu izan zirenean. Jabierrek ez zuen mutikotan haiek bezala *osaba sazerdote txito jakin bat* eduki, *zeinek ezaguturik bere lobiaren entendimentu iratzarri eta ikasinaija, lagunduten eutsan asko liburuak ondo aitutera.* Baina karmeldarren komentu hurrekoan Zerutxu ikastola berria ireki zelarik, eliz giroko irakasle euskaldunak bai eta euskarazko eskola egun osoz. Hortik aurrera, bai Arretxinagako kaleko eskoletan, bai aurrerago Ondarroako institutuan, gaztelania izan zuen eskola-hizkuntza. Igarri barik, baina, artean euskararako zaletasuna indarrak hartzen zihuan Jabierrengan. Beronek aitoren digunez, Markinako gizarte

ezagunetik Ondarroako ikastetxean elkartzen zen gazteri gizarte zabalago eta aunitzagora jauzi egitean, nahiz ikasgaiak erdaraz ikasi, «orduan, garai hartan euskaltzaletu nintzen» diosku berak. Mutil berdingotan.

Irakurle handia zetorrela gazte-gaztetarik erakutsi zigun. Bere kabuz, inork agindu barik, irakurri zituen gure klasiko moderno gorengoen lanak: Orixeren *Euskaldunak*, Lizardiren *Bioz*-begietan, Mitxelenaren *Idazlan hau-tatuak*; poesia zaharra eta oraintsuagokoa, Onaindiaren *Milla euskal olerki eder* bilduman. Bizkaiko klasikoetan, Mogelen *Peru Abarka*, eta urrunago-koetan Axularren *Gero* eta ilara luzea.

Nik Deustuko Unibertsitatean egin nuen Jabier Kaltzakortaren ezagupidea, ikasle izan bainuen, neu irakasle sartu berritan, Euskal Filologia adarrean, oker ez banabil, 1980-81 kurtsoan, orduko ikas egitarauko bigarrenean. Eta hurrengo hirugarrenean ere bai. Ikasle isila zen. Aurreko mahaietan jesartzen zen.

Aldi hartan Euskal Filologia adarrak, gaurko Graduak baino arlo handiago eskaintzen zien espezialitateko gaietara, bai hizkuntzaren, bai literaturaren alderdiei. Euskara orduantxe ofizialdu berri, euskararen eskari handia sortu zen urteotan eta talde ugariak ornitzen ziren gure fakultatean ere, bestetan legetxe. Etxetik euskara ona zekartenak asko, zaletasun handikoak asko. Badakit lehen urte euskararen morfologia ikasteko erreferentziazko liburuetarik bat Azkueren *Morfología Vasca* obra zela; gerra aurreko lana, berez, baina puntu batzuetan atzeraturik gertatu arren, mami handiko lana, eta arina eta atsegina ere bai, euskara gaiak atsegin zituenarentzat. Ez dakit orduko ikasleentzako zenbatek irakurriko zuten *Morfología Vasca* hori, baina Kaltzakortak, inork agindu barik, seguru naiz geldiro eta zehatz irakurri eta ikasi zuela, eta tinko buruan josi zuela haren edukia, anekdotak barru. Aurreko mahaietan jesartzen zen, baina burua gutxi erakutsi eskoletan; isila eta lotsorra zen, diskrezioa gurago zuen, burua erakutsi baino. Eta irakasle ginenontzat ere ez zen erraz, gure ikasleak zenbateraino zekien eta artean beretara zenbat irakurria zen. Euskal Filologiako ikasketak goitu ondoren hasiko zen gure ikertzailearen benetako karrera, ikerketakoa.

Baina ikerketarena baino lehen, luzaroko urteetan bete duen eta oraindik ere diharduen irakaste lana aipatu nahi nuke. Zeren, gure hizkuntzaren

aldeko lanean dituen meritu garrantzitsuetariko da, ene ustez, hainbeste unibertsitari belaunaldi gazteri euskarazko ele ederrak, herri literatura, idazkuntza eta hizkuntza estiloa irakasten eta zuzentzen eman dituen eskolak eta hartu dituen lorrak ez direla sartu *zaku eten ta zulatuan*. Urtez urte bere eskoletatik igaro diren ikasleen *zaku etengo extirianetan* baino, Mogel idazlearen esamolde birekin adierazita.

Ondo gogoan daukat IVAP erakundeak Gasteizen sortu zuen Itzultzaile Eskolan 1987 urteaz geroztik euskal itzulpen kalitatezkoari eskaini zizkion zazpi ahaleginak. Euskal administrazioak orduan zuen hutsune bat bete nahirik eraiki zen Eskola hori, baina iraun zuen urte laburretan lan bikaina egin zuen. Ez dakit eskola horietan irakasten zuen itzulpen konparatuak akuilurik, baina orduko urteetan ondu eta atera zituen ipuin bertsio zoragarri bi, bizkaiko euskara ederrean atonduak: *Pu Songlig-en eta Ekialdeko ipuin miresgarriak*, Txinako ipuin bilduma bana-banakoak euskara ederrean moldatuak (Labayru Ikastegia, Galburua, 1988). Itzulpenetan, are itzulpen literarioetan, nabari izaten da sorkuntzazko testu librean baino areago, noraino menderatzen duen batek hizkuntza bat; hizkera akatsak ere hor salatzzen dira errazen. Itzulpen literarioan frogatu zigun Kaltzakortak bere neurria. Esaldiz esaldi, orriz orri, hainbeste hitz eta esamolde ageri direnak. Lizardi edo Mitxelena baten idaztankera ederraren miresle den honek bere idatzietan erakutsi du maisuro euskarak dituen baliabide apartak kontaeraren harian maisuro mendatzen, itzulpena izanik ere.

Ez da harritzekoa ere ipuin generoa hautatu izana itzultze saio horretarako. Ipuina eta narrazio laburra baititu Jabier Kaltzakortak generorik estimatuenak literaturan. Literatura unibertsalak eman dituen kontu, ipuin edo narrazio labur idazleez beronek adina dakitenak eta irakurri izan dutenak gutxi izango dira, herri literatura barne. Grimm anaiak, Kipling, Borges edo gaur egungoak, herri tradizioko anonimoak zein autore ezagundunak.

Ezra Pound-en *Cathay* lanaren euskal moldaketa ere ordukoa du, 1988 urte ingurukoa.

Euskararen eremuan, ez da inorentzat sekretua, Kaltzakorta jaunak ikerketarako guren duen barrutia, herri-literaturarena dela. «Ahozko generoak izan ditut batez ere ikergai» diosku berak. Hizlaurkoak, hitz neurtuzkoak,

errezitatu erakoak eta osteangoak. Ipuinak, baladak, errefrauak, lo-kantak, dantza-koplak eta abar luze bat aipa daitezke genero txikion artean. Bat edo beste aipatuko ditut aringa.

Tradizioko euskal ipuinen arloan egin duen ikerketaren adibide aproposa dugu *Lamia, Sorgin eta Tartaroen Erresuma ezkutua* (1997) liburua. Agustín Etcheverri delako idazle-biltzaile xume batek bere kaier batean eskuizkribuz bilduriko ipuinak abiapuntutzat harturik mito-pertsonaion gainean jaso denaren ibilbide kritiko bat egiten digu eta pertsonaia horiei buruzko bertsioen ezagutza garbia eman. Ildo bereko beste lan bat aipatzeko: «Herri ipuinen hasiera eta amaierako formulak»¹.

Baladak, erromantzeak izan ditu atergabeko beste ikergaietariko bat. Argitaratu duen artikulu bakoitzean beti dakarkigu aldaera berri ezezagunen bat: Andre Emili, Brodatzen ari nintzen, Bereterretxan kantorea, Senarraren seinaleak, Neska ontziratua, Jaun Zuriano edo besteren bat dela. Balada bat ikertzen duelarik, aurretik horrezaz eginiko guztia jorratuko digu, begi zorrotzaz eta neurriko kritikaz. Eta beti ere publikatzen dituen bertsioen transkripzio fidagarria eskainirik.

Herri koplek aberatsari ere azterketa oparoa eskaini dio. Seinalagarriena, *Dantza-kopla zaharrak* (2007) monografia, non bildu, sailkatu eta ikertu dituen ondasun sakabanatu horren pitxi-lore mordoa, orain artean egin denik eta ugariena eta zehatzena. Nork ezagutzen ote ditu Kaltzakortak baino hobeto gure egunkari, aldizkari, liburu eta bildumetan erdi izkutuaren diren kopla mordoskak, luzeak edo laburrak?

Atsotitzen mundua ezin utzi aipatu gabe, nahiz beronek sarrera-hitzaldi honetan eman digun horretan duen ezaguera zabal eta hurbilaren eskolarik bikainena. Errefrauak, esaera bakarreko edo gehienez ere biko unitateak izanik, bildumetan jasorik datozenak asko izan arren, testuetan txertaturik edo egokiturik bana-banaka ageri dira sarritan, edo hiztegietakoko hitz sarreretan sakabanaturik, Larramendiren edo Azkuerenetan bezala. Argitaratu gabe eskuizkribuetan gorderik dautza beste batzuk. Horien guztien bilatzen eta bil-

¹ *Tradiziozko ipuingintza*, Gauontza Sorta, 2. Bilbo: Labayru Ikastegia, 9-32 or.

tzen, eta modu fidagarri batez transkribatzen eta kontestura ekartzen hamai-ka ahalegin egin ditu gure ikertzaileak, guztiz emankorrak gertatu direnak.

Lo-kantak, sehaska kantak ditu beste batzuetan mintzagai. *Errodrigo Zarateko zaldi urdinaen ganean*, / *bosteun kaskabel urregorritzko / zaldia idunerean*. Eresi zahar horren koplak eder honen oihartzuna berehala antzeman du gure ikertzaileak lo-kantetan. Eske eta erronda-koplez dituen ikerketak ere ahanzi gabe².

Literatura idatziaren eremuan, arlo bi bereizi dizkigu beste guztien gainetik. Narratiba laburra, kontalaritza, nolabait esateko, eta euskal klasikoen idatziak. Eleberria, teatroa, poesia eta beste genero batzuk ere ondo ezagun dituelarik, aipatu genero biok beretzakotu ditu gehien. Gure literatura klasikoaren gaineko zenbait azterlan gogoratzekoan, hurreko dituen Mogel osaba-ilobak dira adibide ona.

Gaur egungo narratiba laburraren arlo zabalean, gazterik irakurri zuen Bernardo Atxagaren *Obabakoak* izan du, besteak beste, kritika aldetik landu duenetarik bat, eta ondo baino hobeto igarri beraren atzean dauden iturriak ere. Genero horretan, Europan, Hego Amerikan eta beste lurralde batzuetan izan diren sorkuntza onetatik edan du gure irakurle handiak, eta horrek eman dio bidea iturrietan azterka ekiteko ere.

Literatura eremu honetan, horren ezagun edo estimatuak izan ez diren baina bere iritzian balio bereziren bat zuten idazleak ezagutarazten eta balioztatzen ere egin du lan. Hala, Mariano Izeta idazle baztandarraren kontuekin, bera oraindik bizi zela, eskaini zion bilduma, sarrera-ikerlan txukun batez lagundurik³.

Euskal lexikografia arloan darabilen lanaz ere zerbait esan beharrik nago.

Labayru Hiztegia egiten lankide izan zen urteak (1990-1994) eta harako eginiko lana, gehiena elkarlanaren anonimatoan izkututzen dena izanik ere,

² «Erronda kantak eta eske-bertsoak», *Euskera*, 2003-1, 48 znb.

³ «Mariano Izetaren lan-bildumaren berri laburra» in *Baztango kontuak*, Laratz-4. Bilbao: Labayru Ikastegia, 11-18 or.

berariaz aipatu nahi ditut, zeren begi zorrotza eta irizpide arteza izan ez balira, zehaztasunean ez zuen gordeko, obra horrek duen maila.

Baina gerora ere ez du etsi, etxe eta kanpo, emakumeak lekuko harturik gehienetan, bitxi edo berezi begitantzen zaion guztia biltzen. Belarria erne eta zoli beti, entzuten denari adi. Buruz ikasi entzundakoa eta arin koadernoratu, buruan fresko den artean. Bildutako guztia esku zabalaz jakinarazi dizkigu, guri eta besteri, azken finean hiztegi corpus bizia etengabe biziberritzen laguntzen dutenak.

Herri-hizkeraren, berariaz lexikografiaren, biltze lanean buru-belarri dihardu gaur artean, Markinaldea gune nagusi duela. Hemendik urrun barrik, Eibarko auzo-urrian eta auzo-euskaran Toribio Etxebarriak bildu zuen corpus ederraren ildotik gogotik ekin dio gure ikertzaileak, batez ere hurreko informatzaileez baliaturik. Toribiok, bera kaletarra izanik, emaztea, Arratetikoa, izan zuen informatzaile nagusia. Eta Eibarren barrik, Caracas-ko atzerrialdian garatu zuen biltze-lana; agian, euskalzaletasuna ere atzerriko urruntasuneko minak eraginda bizkortu zitzaion. Gure ikertzaileak, alagalako berri-emaileak inguratu ditu bertotik irten barrik: Markina, Iturreta, Milloi inguru horretakoak.

Hitzaren bitxiak edo bakantasunak erakartzen du gure ikertzailea: behin hitza, behin aldaera, behin adiera zuzena edo figuratiboa, behin hitz horrekin bilbaturiko esaldia, behin horrekin josiriko lokuzioa edo errefracua, edota horren inguruko ipuin, pasadizo, sineskera edo kontaera zabalagoa. Iker-tzaileak den-dena batzen du.

Ea, luzaro gabe, *De rebus euscarae memorabilibus* horren emaitza oparoa, argitaraturik ikusteko zoria dugun.

Irakasle, ohargile eta laguntzaile

Kaltzakorta hurrean eduki dugun eta daukagunontzat, ikerkuntzaz ate, bada alderdi bat, giza alderdia eta jakintza transmititze alderdia, nabarian utzi nahi nituzkenak.

Deustuko Unibertsitatean, lehenik Euskal Irakaslegoan, eta 1994tik eta gaur arte Euskal Filologia adarrean garatu eta garatzen duen lana guztiz da

aintzat hartzekoa, ez bakarrik gela barruetan irakatsi duen guztiagatik, baizik eta berak horretan ipini duen plus gehigarri horrekin belaunaldi gazteak zinez euskarazaletu dituelako.

Santiago Segura eta Gotzon Garate gogoratzen ditu ereduzko irakasleen artean. Eta berau ere haien idekoa ez ote den nago. Literatura, herri literatura, idazkuntza edo enparatuko gaiak direla, beti bilatuko ditu eskoletarako gairik atseginenak, ahal dela laburrak: Agirre Asteasukoaren konparantzen bat, Lizardiren poesiaren bat, herri baladaren bat, atsotitz esanguratsuren bat, hitz joko bitxiren bat, etimologia ederren bat, Mitxele-naren aipua beti gogoan... Eskola barrukoaz landa, eskolaz kanpo agian gehiago irakatsi duela esango nuke, banan banango eta aurrez aurreko irakatsiak, eskolen gerriko estutik libre berez eta borondatez ematen diren argibide eta irakatsi estimagarriak. Unibertsitateko irakasle-lagunok asko zor diogu berari horretan; seguru naiz behinola Euskal Irakasleagoan zituen kide batzuk ere horretan beraren zordun direnak. Eta zer esanik ere ez Labayru Ikastegiaren Derioko egoitzan diren hainbat teknikari ere. Gutariko batzuk beragana jotzen dugu, idazle batez, gai jakin batez, artikuluko batez zerbait zehatzago jakin nahi dugunean. Alfonso Irigoien zena ere, nire akorduan, mesedetu zen Kaltzakorta jaunaren bibliografia argibideez. Izan ere, irakurle handia, saiaturia eta ohartua, ikastun osoa den batek, dena buruan gordetzen daki eta irabiaturik jendeari eskaintzen. Horretan ere maisu dugu Kaltzakorta irakaslea.

Euskaltzaindiarekiko harremana eta lotura aspaldikoa du Kaltzakortak. 1996ko maiatzaren 31n izendatu zen euskaltzain urgazle eta urte berean sartu zen Herri Literatura batzordeko kide izatera.

Batzorde horren bidez esparru horretan jardun duten hainbat ikertzaileekin izan du harremana. Zenduak dira batzuk: Juan Mari Lekuona, batzordeburu luzaz izen zena; Alfonso Irigoien, Deustuko Unibertsitatean irakasle-lagun urte luzez izan zena. Harreman estu-estua *Auspoa* bildumaren zuzendaria zen Antonio Zavalarekin. Bilduma hori izan du Kaltzakortak herri literaturaren harrobi kutunenatariko bat, eta zenbait artikulutarako gai izan ditu bertako ale eta edukiak, zuzentzen zuen ikertzaileari bezala. Bide batez esanda, gutxi izango dira, berak bezala, goitik behera irakurri eta

edukiz hobeto ezagutzen dutenak. Gaur egun, Joxe Mari Iriondo urgazleak zuzentzen duen Auspoa liburutegiaren batzordekidea dugu.

Herri Literatura batzorde burua dugu. Eraz datorkit abagadune hau, beroni gogorarazteko, Euskaltzaindiak, orain artean bezala, geroan ere herri literaturari bere balioa aitortu nahi diola eta euskal hizkuntzaren osagarri ezin baztertuzkoa duela etorkizunean ere, eta herri literaturaren bilketa eta ikerketaren emaitzak baliagarri izango dituela bere zeregin funtsezkoetan ere, dela hiztegia, dela gramatika, dela beste edozein-ere alderditan. Eta duen erantzukizun horretatik batzordearekin batera bultz egin dezan, Akademiak herri literaturarekin duen eginkizuna osoro kunpli dedin.

Euskara literarioak Bizkaian Markinako uri honetan jadesi zuen bere goitasuna, luzaroko nahi eta ezinen ondoren. Gipuzkoaren muga herri honetan eta mugakide bokazio horrekin. Juan Antonio, Juan Jose eta Bizenta Mogelek ere, Eibar, Deba eta Azkoitian osagileen orduko bizimodu ibiltarian lorratza itxi bazuten ere, hemen zimendua hartu zuten idazte lanean. Astarloatarrek ere hemengo arrastoa zuten. Frai Bartolome etxebarritarra ere hona ekandu zen eta zuk, Jabier, tentu handiz aztertu dituzun dantzakoplen eta euren soinuan gorputzari deragioten gazteen kontura hemendik urrun barik idatzi zuen: *Soloko koko saltokarijak laboria galduten daben legez, emakume dantzarijak arimaak galduten ditubeela. Dantziak Inpernuko pozutik urten dabela. Inpernuko labati kee atsitubak urteten daben legez, naasteko dantzeetati luxurijaren subak urteten dabela.* Baina baita ere, hain maitero aztertu dituzun atsotitzen sorta eder bat hemen hurbil idatzi zuen Mogel zaharrak ere. Eta zu ere, Jabier, haiek bezala, «Goiko Portaleko iturria» eta berean zizelkaturik dauden lauakoak bezain markinarra zara. Eta Mugartegi Jauregi honetan, Wilhelm prusiarrak eta Juan Antoniok bat egin zuten asko esan gurako jauregi honetan, hartzen zaitu Euskaltzaindiak bere altzoan. Guztiz merezia zenuen ohore hori lehenagotik ere.

Ondo etorria, bada, lehendik ere zeure etxea duzun Akademiaren aterbe honetara, baina ardura gehiago eta sendoagoekin.